



BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Gure enpresaren bezeroak kosmetika eta erropa elkarte edo denda txikiak izango direnez, haiekiko harreman estua izan nahi dugu, gure zerbitzuak beraien nahi eta beharretara ahalik eta hoberen egokitzeko gai izateko.

Gure enpresaren berri sare sozialen bidez eta baita kalean jarriko ditugun iragarkien bidez emango dugu.

Behin bezeroak lortuta haiekiko harreman estua mantentzea izango da gure helburua. Gure langileak talde ezberdinetan banatuko ditugu eta talde bakoitza enpresa edo denda bat edo birekin lotuko dugu, modu honetan denda bakoitzak bere talde propioa izango du haien iragarikiak sortzerako momentuan.

Bezero berriak lortzeko, sare sozialen bidezko iragarki eta kalean jarritako iragazkiez gain, gure webgune propioa sortuko dugu, eta bertan gure enpresari buruzko informazioa txertatuko dugu, egindako lan ezberdinak erakutsiz, langileon informazioa erantsiz, eta gure enpresaren kolaborante diren elkarteen informazioa jarritz. Gainera, webgunearen barnean haien proposamenak bidaltzeko email bat eskainiko dugu, eta eguneko 12 orduak aktibo egongo den pertsona bat lanean ibilko da hauek erantzuten.

Denbora askoz gure bezeroak izan direnekin harreman estua izaten jarraitzeko, gure enpresaren telefonoa izango dute eskuragai, honela kontaktuan jarraitzeko erraza izango den bide bat erabiliz, eta kasu batzuetan WhatsApp taldeak ere sortuko dira, enpresa eta bezeroaren harremana gertuagokoa sentitzeko.

